



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra

**Bilera-zenbakia:** 2007ICGO0001

**Eguna:** 02-02-2007

**Ordua:** 12:00-13:30

**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea EA/EAJ-PNV
- Jesús Fontal García EA/EAJ-PNV
- Juan Joxe Uranga Mendiburu EA/EAJ-PNV
- Eloy Bazan Bazan EA/EAJ-PNV

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
<b>AURREKO AKTAREN ONARPENA</b>	<b>1</b>	APROBACIÓN DEL ACTA ANTERIOR
<b>2007KO LAN EGUTEGIA</b>	<b>2</b>	CALENDARIO LABORAL DE 2007
<b>KONTSULTORIA KONTRATUEN LUZAPENA</b>	<b>3</b>	PRÓRROGA DE VARIOS CONTRATOS DE CONSULTORIA
<b>HAINBAT ZERBITZU KONTRATUREN LUZAPENA</b>	<b>4</b>	PRÓRROGA DE VARIOS CONTRATOS DE SERVICIO
<b>ZENBAIT ZERBITZUTARAKO LEHIAKETAK ABIAN JARTZEA.</b>	<b>5</b>	NUEVOS CONCURSOS PARA PRESTACIÓN DE DIFERENTES SERVICIOS
<b>UDAL INFORMAZIOREN PROTOKOLOA</b>	<b>6</b>	PROTOCOLO DE INFORMACIÓN MUNICIPAL
<b>INFORMAZIOA, GALDERA ETA ERREGUAK</b>	<b>7</b>	INFORMACIÓN RUEGOS Y PREGUNTAS

#### Esan-eginak eta erabakiak

##### 1- AURREKO AKTAREN ONARPENA

Akta aho batez onartu da.

##### 2- 2007KO LAN EGUTEGIA

##### 1- APROBACIÓN DEL ACTA ANTERIOR

Se ha aprobado el acta por unanimidad.

##### 2- CALENDARIO LABORAL DE 2007



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak adierazi du urtarrilaren 30ean pertsonaleko bilera egin zela eta bertan 2007ko egutegia aztertu zela. Hori dela eta proposatzen zaio Tokiko Gobernu Batzarrari 2007ko egutegia onartzea hain zuzen jarraian zehazten dena:

El Alcalde informa que con fecha 30 de enero se reunió la comisión de personal y en la misma se analizó el calendario 2007. Por todo ello se propone a la Comisión de Gobierno la aprobación del calendario para 2007 en las siguientes condiciones:

Ikusirik departamentu ezberdinetatik iritsitako egutegiak:

Vistos los calendarios aportados por los diferentes departamentos:

- Udaletxeko orokorra eta brigada: langile ordezkariak eskuz entregatua 22/01/07 .
- Erregistro eta Gizarte administraria, Arkitektoa eta Kirol Teknikaria: Idazkaritzak egokitua langile ordezkariak ekarritako orokorraren arabera.
- Kultura: Amaiak berea eta Kontxirena bidaltzen ditu emailaz urtarrilaren 29an. Josunek berea langile ordezkariak ematen dituen zeinek idazkaritzari azaltzen dioten urtarrilaren 22ko astean.
- Udaltzainak: Irailean sagardo denboraldia barneratzen ez duen egutegia aurkezten dute, erregistro bidez. Ondoren abenduan sagardo denboraldia barneratzen duena aurkezten dute, kabuak eskuz entregatzen du idazkaritzan. Bi egutegi hauek errebisatu eta zuzendu ondoren urtarrilaren 15eko astean Agustinek eskuz entregatzen ditu idazkaritzan.
- Genérico del Ayuntamiento y Brigada: los representantes de los trabajadores entregaron en mano en secretaría el día 22/01/07
- Registro, administrativo de bienestar social, arquitecto y técnico de deportes: Ajustado por secretaría en función del genérico aportado por los representantes de los trabajadores.
- Kultura: Amaia aporta el suyo propio y el de Kontxi por e-mail el 29 de enero. Josune aporta el suyo a los representantes de los trabajadores quienes lo entregan en secretaría.
- Guardia Municipal: Entregan en registro en el mes de septiembre un calendario sin incluir la temporada de sidra. Posteriormente, el cabo entrega en diciembre en secretaría un calendario que incluye la temporada de sidra. Finalmente, Agustín entrega en mano en secretaría los calendarios citados anteriormente con algunas correcciones la semana del 15 de enero.

**Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez 2007ko egutegia onartu zuen honako ezaugarrietan oinarriturik:**

**La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprueba el calendario del 2007 que se fundamenta en los**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### siguientes aspectos básicos:

LANGILEAK	Udaletxeko orokorra eta Brigada	Erregistro eta Gizarteko administraria	arkitektoa	kultura	Kiroldegia	Udaltzainak
Sarrera ordua	7:15	09:00	07:15	Amaia: 09:00 edo 08:00 Eskola oporrak Kontxi: 08:30 edo 07:30 Eskola oporrak Josune: Astelehen eta asteaz. 10:00 Arratsalde, 16:00. 07:30 Eskola oporrak	08:30	06:30-22:00
Lan ordu kopurua	7'18	4'45	7'16	7'18	6'00	Pendiente reajuste
Konpentsazioak	3 hilabete naturaletan	3 hilabete naturaletan	3 hilabete naturaletan	3 hilabete naturaletan	3 hilabete naturaletan	3 hilabete naturaletan
Egun baliadunak	241	241	151	241	156	Pendiente reajuste
Lan egunak	217	217	146	217	144	- Kaboa 217 - Gainontzekoak 205 eko batez bestekoa
Orduak	1585	1030,25	951	1585	792,5	1585

### UDALTZAINEN KASUA

IZENAK	IÑAKI IRAOLA	AGUSTIN	PEIO	ANA GOÑI	HARITZ	IÑIGO
DENERA LAN EGUNAK	205	209	206	201	207	246
ORDUAK DENERA	1640	1696	1680	1656	1672	1768
ONARTUTAKO LAN ORDUAK	1585	1585	1585	1585	1585	1585
SOBERAN DAUDEN ORDUAK	55	111	95	71	87	183

Udaltzainei jakinaraziko zaie, aurkeztutako egutegietan azaltzen diren 1585 orduen gainera azaltzen den soberakina, lan egun kopurua errespetatuz, aste egunetan, txanda laburragoak eginez egokitu behar dutela.

Se informa a la Guardia Municipal que el exceso de horas que presenta su calendario, tendrán que reducir la duración de cada turno durante las jornadas de trabajo de lunes a viernes, respetando el número de días de trabajo, hasta ajustarse con las 1585 aprobadas.

Langileen ordezkariak proposatu du El representante de los trabajadores ha



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

urriaren 12an eta abenduaren 6an aukera izatea langileek egun horietan lan egiteko eta horren truke jai egunen bitartez orekatzea, gaia eztabaidatu ondoren Alkateak ontzat eman du proposamena baina orekatuko den jai eguna hilabete berean gauzatuko da. Eta proposamen hau onartu dute langileen ordezkariak.

Azkenik Alkateak gogoratu du herriko jaietan komenigarria dela brigadako langileak lan egitea eta horretarako behar adineko koordinazioa gauzatuko da kulturako arduradunekin festen garaiari programak babesa izan dezaten. Hala ere gai hau oporren plangintzan sartuko da.

Aipaturiko egutegia aho batez onartu da eta adierazi da Udaltzaingoaren kasuan ere herriko jaietan ezingo dituztela oporrak egin.

propuesto dejar abierta la opción de poder trabajar el 12 de octubre y el 6 de diciembre y poder disponer de las jornadas de vacaciones correspondientes en otro periodo. El Alcalde ha matizado que está de acuerdo con la propuesta pero con la salvedad de que se disfrute del día festivo durante el mismo mes. Esta propuesta ha sido aceptada por los representantes de los trabajadores.

Finalmente el Alcalde ha recordado la necesidad de que durante las fiestas locales la brigada esté trabajando y para ello indica la necesaria coordinación con el departamento de cultura para cubrir los diferentes eventos. En cualquier caso este tema esta incorporado a la planificación del calendario de vacaciones.

El calendario indicado se ha aprobado por unanimidad añadiendo que la Guardia Municipal igualmente no podrá disfrutar de vacaciones durante las fiestas locales.

### 3- KONTSULTORIA KONTRATUEN LUZAPENA

Hirigintzako aholkularitzako kontratuak direla eta Alkateak proposatu du indarrean dauden kontratuak luzatzea beste urte bete. Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena baieztatu du eta honako akordioak onartu ditu:

1.- 2. luzapena egitea 2008ko urtarrilaren 2 arte ondorengo kontratuei:

- Aholkularitza kontratua arkitekto zerbitzuetarako: Ramón Uranga Zuriarrain.

- Aholkularitza kontratua arkitekto tekniko zerbitzuetarako: Iñaki Artano Errazkin.

### 3- PRÓRROGA DE VARIOS CONTRATOS DE CONSULTORIA

En relación con los contratos de consultoría de Urbanismo que están en vigor, el Alcalde ha propuesto prorrogarlos por un año. La Junta de Gobierno Local ha aprobado la propuesto en los siguientes términos:

1.- Realizar la segunda prórroga hasta el 2 de enero de 2008 de los siguientes contratos de consultoría:

- Contrato de consultoría para la prestación de servicios de arquitecto de Ramón Uranga Zuriarrain.

- Contrato de consultoría para la prestación de servicios de arquitecto



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

- Aholkularitza kontratua  
aholkularitza juridikoko  
zerbitzuetarako: Nekane Martinez  
Azarola.

técnico de Iñaki Artano Errazkin.

- Contrato de consultoría para la  
prestación de servicios de asesoría  
jurídica de Nekane Martinez Azarola.

2.- Aipaturiko kontratuak eguneratzea,  
2006an Estatuko Kontsumo Prezioak  
igoeraren arabera. Hain zuzen 2,7%.

2.- Actualizar los citados contratos en  
relación al IPC del estado para 2006; esto  
es, un 2,7 %.

3.- Idazkariak adierazi du hirigintza arloan  
Maider Basurtok 2006an zehar lanak  
burutu dituela eta kontuan harturik luzatu  
den fakturazioa ezinbestekoa dela  
kontratu hori bideratzea, behar adineko  
kontratazioaren bitartez. Horretarako  
komun egokia da, berak 2006ko lanen  
memoria presta dezala eta hondoren  
hirigintzako lehendakariaren txostenaren  
bitartez ebaluatu beharko litzateke  
kontratuaren funtsa. Beraz, hori guztia  
gauzatzen den bitartean Tokiko Gobernu  
Batzarrak onartu du aipaturiko  
zerbitzuarekin jarraitzea.

3.- El Secretario ha indicado que Maider  
Basurto ha realizado trabajos durante  
2006 en el área de urbanismo y que  
teniendo en cuenta la cifra total facturada  
es necesario reconducir ese situación  
mediante el correspondiente contrato.  
Para ello resulta pertinente que presente  
una memoria de las tareas realizadas  
durante 2006 y posteriormente, previo  
análisis del informe del presidente de la  
comisión de urbanismo se determine la  
naturaleza del contrato que  
correspondería. Por lo tanto, mientras se  
procede con lo citado la Junta de  
Gobierno Local ha acordado continuar  
con los servicios prestados actualmente  
por Maider Basurto.

#### 4- HAINBAT ZERBITZU KONTRATUREN LUZAPENA

Udal zerbitzu kudeaketarako kontratuak  
direla eta Alkateak proposatu du  
indarrean dauden kontratuak luzatzea  
beste urte bete. Tokiko Gobernu  
Batzarrak proposamena baieztatu du eta  
honako akordioak onartu ditu:

1.- 2. luzapena egitea 2008ko urtarrilaren  
2 arte ondorengo kontratuei :

1.- Kale hezitzaileen zerbitzu  
kudeaketa esleipen kontratua: Aisialdiko  
Zerbitzuak S.L.L.Igone Virto Carrasco

2.- Etxez etxeko laguntzaren  
zerbitzu kudeaketa esleipen kontratua:

#### 4- PRÓRROGA DE VARIOS CONTRATOS DE SERVICIO

En relación con los contratos de gestión  
de servicios que están en vigor, el  
Alcalde ha propuesto prorrogarlos por un  
año. La Junta de Gobierno Local ha  
aprobado la propuesta en los siguientes  
términos:

1.- Realizar la segunda prórroga hasta el  
2 de enero de 2008 de los siguientes  
contratos:

1.- Contrato de gestión del servicio  
de monitores de educación de  
S.L.L.Igone Virto Carrasco

2.- Contrato de gestión del servicio  
de ayuda domiciliaria de Arreta zerbitzuak



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Arreta zerbitzuak S.L.

S.L.

3.- Etxe babestuetako zerbitzu kudeaketa esleipen kontratua: Arreta zerbitzuak S.L.

3.- Contrato de gestión del servicio de casas tuteladas de Arreta zerbitzuak S.L.

1.- 1. luzapena egitea 2008ko urtarrilaren 2 arte ondorengo kontratuei :  
- Zabor bilketaren zerbitzua  
kudeaketa esleipen kontratua: FFCC

2.- Realizar la primera prórroga hasta el 2 de enero de 2008 del siguiente contrato:  
- Contrato del servicio de recogida de basura de FFCC

3.- Aipaturiko kontratuak eguneratzea, 2006an Estatuko Kontsumo Prezioak igoeraren arabera. Hain zuzen 2,7%.

3.- Actualizar los citados contratos en relación al IPC del estado para 2006; esto es, un 2,7 %.

### 5- ZENBAIT ZERBITZUTARAKO LEHIAKETAK ABIAN JARTZEA.

### 5- NUEVOS CONCURSOS PARA PRESTACIÓN DE DIFERENTES SERVICIOS

Alkateak adierazi du jada hainbat kontratu agortuak daudela eta beraz dagozkien izapideak bideratu behar direla kontratuak esleitzeko. Zehazki ondorengo zerbitzu hauek bideratu behar dira:

El Alcalde ha informado que varios contratos están extinguidos y por lo tanto que hay que poner en marcha los procedimientos correspondientes para su adjudicación, en concreto en lo que se refiere a los siguientes servicios:

ZERBITZUA	EMPRESA	CONT URTEA	AMAIERA DATA
- Servicio de limpieza de Ayuntamiento e lkastola	Mari Carmen Guerrero	20/01/2003	19/01/2007
- Limpieza de la Musika Eskola y del local de la Brigada.	Mari Carmen Guerrero	1/10/2002	31/09/2006
- Limpieza de Viviendas Tuteladas.	Mari Carmen Guerrero	1/06/2000	31/05/2004
- Limpieza y vigilancia de la casa de cultura.	Euskal Zerbitzuak		AMAITUA
- Servicio de Limpieza Viaria	Galant Garbitasuna s.l.	31/03/2001	30/03/2005
- Servicio de Mantenimiento de Zonas Ajardinadas.	Goroldi-Grupo gureak	31/03/2001	30/03/2005
- Servicio de Mantenimiento de Servicio Público de Alumbrado.	SICE	1/03/2001	28/02/2005



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

- Limpieza y vigilancia del Aterpe de Santiagomendi.	Maria Jose Mugica Etxaiz	1/12/2002	30/11/2006
--	--------------------------	-----------	------------

Hori dela eta honako tramiteak garatzea onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak:

- Idazkaritzak kontratazio espedienteak irekiko ditu.
- Dagokion departamentu buruak behar adineko txostena eta baldintza teknikoak prestatu beharko ditu.
- Ondoren idazkaritzak baldintza juridiko administratiboak prestatuko ditu lehiaketa bideratzeko.

Por todo ello la Junta de Gobierno local ha aprobado proceder con los siguientes trámites:

- Secretaría procederá a la apertura de los expedientes de contratación.
- El responsable del correspondiente departamento preparará el pertinente informe y el pliego de condiciones técnicas.
- Posteriormente, secretaría procederá a realizar el pliego de condiciones jurídico administrativas para proceder con el concurso.

### 6- UDAL INFORMAZIOREN PROTOKOLOA

Aurreko Tokiko Gobernu batzarrean azaldutako hiritar baten eskaeraren aurrean eta behar den informazioa bideratu ahal izateko Idazkariak prestatutako txostena aurkeztu du, eta horrekin batera landutako protokoloa adierazi da. Gaia eztabaidatu ondoren Tokiko Gobernu Batzarrak baieztatu ditu eta idazkaritzatik prozedura bideratuko da.

### 6- PROTOCOLO DE INFORMACIÓN MUNICIPAL

En respuesta a la solicitud planteada por un ciudadano tratada en la anterior Junta de Gobierno Local y en aras de determinar los flujos de información, se ha presentado el informe redactado por el Secretario Interventor y junto a ello se ha expuesto el protocolo trabajado. Tras su debate la Junta de Gobierno Local los ha ratificado y se procederá a su concreción desde secretaría.

### 7- INFORMAZIOA, GALDERA ETA ERREGUAK

a) Idazkariak jakinarazi du aurreko kontratazio mahaian izandako eskaintza ekonomikoak. Horren arabera adierazi du txosten bat prestatu dela eta laburbilduz, OZIO S.L. proposamena, hain zuzen %16,85, kontsideratu daiteke temerario gisa, baina horrek ez du esan nahi zuzenean kanpoan geratzen den proposamena denik. Udal teknikariek aztertu beharko dute beraien proposamena eta baliabideak ziurtatzeko aipaturiko enpresak egin duen eskaintzarekin bermatuko dela obraren exekuzioa Udalak ezarritako baldintzen arabera. Horrela ez balitz

### 7- INFORMACIÓN RUEGOS Y PREGUNTAS

a) El secretario ha informado sobre las ofertas económicas recogidas en la anterior mesa de contratación para la urbanización de un ramo de Galtzaur. Entre otros se ha informado que la oferta de OZIO S.L. con una reducción del 16,85% se puede considerar como temeraria, lo cual no significa que quede excluido automáticamente. Esta propuesta será analizada por los técnicos municipales que analizarán si con los medios expuestos se puede garantizar la ejecución de la obra en función del pliego de condiciones. En caso contrario se desearía esta propuesta económica.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

proposamena kanporatuko litzateke.

Tokiko Gobernu Batzarrak adierazi du kontratazio mahaia otsailaren 16an goizeko 9etan egingo dela eta esleitzeko proposamena otsailaren 23an egingo den Osoko Bilkuran aurkeztuko dela.

La Junta de Gobierno Local ha informado que la mesa de contratación se volverá a reunir el 16 de febrero a las 09:00 horas, para presentar la propuesta de adjudicación en el Pleno que se celebrará el 23 de febrero.

b) Idazkariak jakinarazi du Euskal Erkidegoko Justizia Auzitegiak eman duen epaia 207/2006.

b) El secretario Interventor ha informado sobre la sentencia 207/2006 del Tribunal de Justicia del País Vasco.

c) Premiazko deklarazioa baieztatu ondoren Tokiko Gobernu Batzarrak Zerga Informazioa emateko Lankidetzaren Hitzarmena, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren eta Astigarragako Udalaren arteko hitzarmena onartu da.

c) Tras la ratificación de la declaración de urgencia la Junta de Gobierno Local ha aprobado el Convenio de Colaboración en Materia de Cesión de Información Tributaria, entre el Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas y el Ayuntamiento de Astigarraga.

d) Jakinarazi da kulturatik igorritako Eskola Kirolaren Kudeaketarako Lankidetzaren Hitzarmena.

d) Se ha informado sobre el convenio de colaboración para la gestión del deporte escolar.

e) Juan Joxe Urangak aurkeztutako txostena berresten da, Monroy eta Pinto kasuan zehaztu behar diren eta ordaindu behar diren alokairuak zenbatekoak izango diren eginiko txosten juridikoan oinarriturik.

e) Se ratifica el informe presentado por Juan Joxe Uranga sobre la cuantía de los alquileres que el Ayuntamiento ha de abonar a Monroy y Pinto basados en informe jurídico.

Bilera amaitutzat eman dugu 13:30etan eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2006ko otsailaren 5a

Xabin Olaizola Lasa  
Idazkari- Kontu-hartzailea